

IRAKASLEEN HIZKUNTZA ESKAKIZUNAK

AUKERA ANITZEKO GALDEKIZUNA

HE2

- Proba honek 70 galdera ditu. Gainditzeko 45 puntu lortu behar dira.
- Lau aukeren artean erantzun **egokiena** aukeratu eta **erantzun-orrrian** markatu.
- Erantzun okerrengatik ez zaizu punturik kenduko.
- Erantzuteko denbora: **ordubete**.

1 "Zuk aipatu duzun horrek erdiz erdi hartzen du darabilgun arloa". Zein da baliokidea?

- a) Zuk diozunez, bi parte bezala dauzkagu arlo horretan.
- b) Zuk diozunak ez du zerikusirik gure gaiarekin.
- c) Esan duzunak ihes egiten dio gure arloari.
- d) Zuk diozunak erabat eragiten dio gure gaiari.

2 Egin nahi nuke, baina ia ezinezkoa da. Beldur naiz

.....

- a) sekula ez dudala egingo.
- b) behin egingo dudala.
- c) inoiz egingo dudala.
- d) egingo dudalakoan.

3 Ez ginen gauza izan zor eskatzeko eta eskuratzeko.

- a) genuena
- b) zigutena
- c) geniena
- d) ginena

4 Nori berea aitor

- a) bekio.
- b) diezaion.
- c) dadin.
- d) bedi.

5 Zein da zuzena gramatika aldetik?

- a) Ekografian argi ikusten da umekiak arazoren bat duela edo ez.
- b) Medikuek ez zion antzeman haurraren gaitzari.
- c) Irakasleak ez dio isilaraziko ikasle horri.
- d) Ez dakit haur horiek bereziak badira.

6 Zorrak bost axola zaizkiola adierazteko, zein esapide erabiltzen da?

- a) Hitzak hitza du zor.
- b) Zorrak zor, lepoa lodi.
- c) Nori berea zor zaio.
- d) Bizi denak bizia zor.

7 Zein dago GAIZKI idatzita?

- a) Hezea
- b) Hestea
- c) Herrua
- d) Herensugea

8 Zein da gramatikalki zuzena?

- a) Etxean atxilotu zidaten.
- b) Begi txarrez begiratu zidaten.
- c) Kartzelan bisitatu zidaten.
- d) Bi urterako zigortu zidaten.

9 Oso argi dago kontua; batzuei ongi edo gaizki, edo erdipurdi iruditu zaien.

- a) bestela
- b) besterik da
- c) beste egunean
- d) behin

10 Eguratsa kutsatzen jarraitzen badugu, itsasoak eta naturak hartuko omen digute.

- a) mendean
- b) mendeku
- c) menpe
- d) inbidia

11 Hego Amerikan diktadura garaiko errepresioak jartzen ari dira zenbait epaile.

- a) epaiketan
- b) auzibidean
- c) auziz auzi
- d) auzunean

12 Ez du inork den biderik asmatuko.

- a) guztiok gogoko
- b) guztion gogoz
- c) guztiz gogokorik
- d) guztion gogoko

13 Burutapen bikain guztiak bezala, ideia hori ere bakuna da, xinplea; alegia,

- a) tontoenak ere igarriko lioke.
- b) jakintsuak ere ulertuko luke.
- c) askori lanak emango lizkioke.
- d) edozeinentzat ere ulertezina.

14 "Noiz egingo dugu, bada, korrika?" Zein da erantzun DESEGOKIA?

- a) Gerotxoago.
- b) Litekeena da.
- c) Beranduago, agian.
- d) Gero, apika.

15 "Apirila hotz,". Eman jarraipena esamoldeari.

- a) maiatza kokots
- b) udan izotz
- c) martxo luze
- d) udaberri motz

16 "....., aurtengo datuak iazkoak baino hobeak dira". Zein da DESEGOKIA?

- a) Langabeziari dagokionez
- b) Langabeziaren ildo beretik
- c) Langabezia kontuan
- d) Langabeziaz ari garela

17 "Etxekoak agertu baino lehen alde egin zuen zapuztuta". Nola zegoen?

- a) motelduta
- b) asper-asper eginda
- c) kontent
- d) erreminiduta

18 Gairik premiazkoenetan beti itzuri eta ihesbide bila zabilta, pentsatzen duzuna

- a) golkoan gordez.
- b) egoki azpimarratuz.
- c) argi eta garbi adieraziz.
- d) lau haizetara aldarrikatuz.

19 Nahitaez irabazi beharra daukagu,

- a) kostata.
- b) kosta ahala kosta.
- c) kostuak kostu.
- d) kostaz kosta.

20 Trena hartuko dugu.

- a) 08:05ean
- b) 08:05en
- c) 08:05tan
- d) 08:05etan

21 Zein da zuzena gramatika aldetik?

- a) Espero dut ondo iruditzen zaizuela nire gomendia.
- b) Eskertuko nizueke hau guztia aintzat hartu duzuela.
- c) Nire hartutako erabakia bidezkoa dela dirudi.
- d) Nahiago nuke nire jarrera ulertuko bazenu!

22 Zein dira baliokideak?

- a) guraria / irrika
- b) ondasuna / hondamendia
- c) eroso / eraso
- d) kiratsa / isatsa

23 Zein da gramatika aldetik zuzena?

- a) Atertu da.
- b) Bostak jo dute.
- c) Eutsi goia!
- d) Hori baino onagoa da hau.

24 Norbaitek "Erdi hona!" badiotsu, zer diotsu?

- a) Kasu egiteko.
- b) Alde egiteko.
- c) Hurbiltzeko.
- d) Erdibitzeko.

25 Izatez moja eta fraide ziren;, berriz, irakasle, tituluak gorabehera.

- a) berez
- b) arrazoiz
- c) lanbidez
- d) sinesmenez

26 Gai horretan inork maltzurkeriaz jokatu badu, ez gara gu izan;

- a) ez horregatik!
- b) ez behintzat!
- c) ez alegia!
- d) ez horixe!

27 Etxetik orraztuta irten naiz eta haizeak ilea erabat dit.

- a) harrotu
- b) kizkurtu
- c) zapaldu
- d) leundu

28 Bat-batean erantzun beharrean, erantzuteko eskubidea beretzat gorde du, gizon dagokion bezala.

- a) zekenari
- b) ergelari
- c) zuhurrari
- d) harroari

29 "Europak berretsi du hizkuntza-eskubideak urratzen direla". Zer adierazi nahi du?

- a) Ez direla betetzen.
- b) Berriak aitortu direla.
- c) Babestu direla.
- d) Birplanteatu direla.

30 "Adibide batzuk jarriko dizkizuet, esandakoa hobeto". Zein da OKERRA?

- a) ulertze aldera
- b) ulertzeko
- c) uler dezazuen
- d) ulertzera

31 "Elkarren arrazoiei kasurik egin gabe, hor ari dira eztabaidan jo eta ke". Zein esamoldek adierazten du ondoen egoera hori?

- a) Zozoak beleari ipurbeltz.
- b) Gogoko lekuan aldaparik ez.
- c) Bakoitzak bere astoari arre.
- d) Bista ona eta elkar ezin ikusi.

32 Arazoei adabakiak jartzeko prest dagoen dirudi alkate horrek.

- a) jostuna
- b) baserritarra
- c) arrantzalea
- d) garbitzailea

33 Eskerrak etxe horiek bata besteari eusten dioten, bestela

- a) gehiago iraungo zuten.
- b) ez ziren eroriko.
- c) erori dira dagoeneko.
- d) erorita zeuden honezkero.

34 Ez dut amore emango ni aintzat hartu arte; alegia,

.....

- a) ez dut ezer egingo.
- b) ez dut etsiko.
- c) zakar jokatuko dut.
- d) ez naiz adiskidetuko.

35 Hasieran genituen asmoak gaizki ere, ez damutuko.

- a) irten balira / nintzatekeen
- b) irtengo baziren / nintzen
- c) irtengo balira / ninteke
- d) irten balira / nintzekeen

36 Salaketa artxibatu egin zuen epaileak, ez zuelako delitu ikusi.

- a) zantarrik
- b) zantzurik
- c) zirkinik
- d) zaputzik

37 Zein dago TXARTO?

- a) Zulo bakoitzan fitxa bana sartu behar dira.
- b) Zenbat kobratzen dute fotokopiako?
- c) Bakoitzari dagokiona eman diogu.
- d) Hamabi euro ordaindu du liburuko.

38 Duela gutxi jarri zuten zerbitzua eta oso harrera ona izan du.

- a) oraingo
- b) oraindik
- c) oraindik orain
- d) oraintsu

39 Zein da zuzena?

- a) Damu diot lan hori egin izateari.
- b) Damu dut lan hori egin izana.
- c) Damu naiz lan hori egitea.
- d) Damu dit lan hori egiteak.

40 "Aurrean daukagun lana gaitza da eta ez genituzke eragozpenak gutxietsi behar." Zein da baliokidea?

- a) Oso lan zaila da eta ezin dugu inola ere egin.
- b) Lan horrek mesede baino kalte gehiago egingo du.
- c) Lan horri ezin zaio heldu itsu-itsuan, tentuz baizik.
- d) Lan horri ez diogu hainbesteko garrantzirik eman behar.

41 Zein da OKERRA?

- a) Nola gazteek hala zaharrek iritzi bera agertu dute.
- b) Neskek zein mutilek jarrera bera dute.
- c) Bai Gasteizen, bai Bilbon, tranbia jartzen ari dira.
- d) Bai batzuek nola besteek badakite hori.

42 "Zer ordutan iritsi zinen etxera?" Zein da erantzun zuzena?

- a) Ordu biek jota.
- b) Ordu bietan inguruan.
- c) Ordu biak aldera.
- d) Ordu bietan-ordu bietan.

43 Ez du inork esan, , gure aldizkariak bere bidea aldatu duenik.

- a) baita zera ere!
- b) nik dakidanez
- c) ahal dela
- d) batek daki

44 Zein da OKERRA esanahi aldetik?

- a) Sitsak janda dauzkagu altzariak.
- b) Burdina erraz herdoiltzen da kanpoan.
- c) Ez dakit noiz inausten diren sagarrondoak.
- d) Jar ezazu ardoa beratzen!

45 Zeinek du esanahi DESBERDINA?

- a) Leherrarazi.
- b) Zartarazi.
- c) Eztanda eragin.
- d) Irakinarazi.

46 Errepideetan hildakoen kopurua baino askoz altuagoa da.

- a) minbiziak jotako
- b) minbiziak jota
- c) minbiziak jota hildakoak
- d) minbiziak jota hildakoena

47 "Antonio alferrik galduta ikusi dut". Zer esan nahi du?

- a) Alfertu egin dela.
- b) Itxura eskasa duela.
- c) Alferrik ari dela lanean.
- d) Bizimodua ongi doakiola.

48 izango da bertso-txapelketa.

- a) Datorren igandean 22
- b) Datorren igandeak 22an
- c) Datorren igandean, abenduak 22,
- d) Datorren igandean, abenduak 22an,

49 Gizarteak bere etorkizuna erabakitzea nahi izatea die buruzagi horrek aurkariei.

- a) eragotzi / egotzi
- b) egotzi / egotzi
- c) eragotzi / eragotzi
- d) egotzi / eragotzi

50 Zein da zuzena?

- a) Gurasoek erabakitzen dute zeinek egingo du lan eta zein geratuko da etxean.
- b) Zeinek dira tentelagoak: legegileak ala lege horiek onartzen dutenak?
- c) Badaude balio batzuk gaizki transmititzen diren.
- d) Gurasoek ez ote diete gehiegi eusten seme-alabei etxean?

51 Zein EZ DIRA sinonimoak?

- a) Adorea / Kemena / Animoa
- b) Kutsatu / Lohitu / Araztu
- c) Oihua / Orroa / Txilioa
- d) Eztabaida / Tirabira / Liskarra

52 Istripuan zauritutako hamar lagun zituzten medikuek larrialdi zerbitzuetan.

- a) larritu
- b) eraso
- c) gaixotu
- d) artatu

53 Aurrerabidea edo progresoa aldatzaile izan ohi da beti,

- a) agian.
- b) ezinbestean.
- c) behinik behin.
- d) bide batez.

54 "Baina, baina, zer egin duzu, irakaslea iraindu?" Hautatu jarraipen egokia.

- a) On-ona egin duzu, seme!
- b) Primerakoa egin duzu, seme!
- c) Ederra egin duzu, seme!
- d) Dotorea egin duzu, seme!

55 Iritziari gogor eta amore eman gabe eusten dionari, zer esaten zaio?

- a) Tentela.
- b) Temosoa.
- c) Burutsua.
- d) Buruberoa.

56 Utz ditzagun kixotekeriak alde batera,

- a) hitzak haizeak eramaten ditu eta.
- b) amets egiteko garaia heldu zaigu eta.
- c) zuhur jokatzetik ez dago eta.
- d) zentzuz jokatzeko ordua iritsi zaigu eta.

57 Serio-serio jarri zen irakaslea. Ikasleak isilduko baziren!

- a) Eskerrak!
- b) Utikan!
- c) Beharko!
- d) Alajaina!

58 Politikariek hitz gogorak erabili zituzten atentatua

- a) arbuiatzeko.
- b) aldarrikatzeko.
- c) alderatzeko.
- d) antzemateko.

59 Jendeak, itsasoaren pikardia ez duenak behintzat, ederra iritzi dio olatuen ikuskizunari.

- a) nozitu
- b) miretsi
- c) txalotu
- d) apaindu

60 "Makur jokatzeko duenak biziki maite ditu azpizanak eta sator-lanak". Zer esan nahi du?

- a) Jende apalak gogoko ditu amarruak eta tranpak.
- b) Satorraren jokabidea goraiatzeko du.
- c) Kalte egin nahi duenak maltzur jokatzeko du.
- d) Makurtzen ez dakiena ez da gora iritsiko.

61 Etxeko lan asko amari, aitari dagozkiola uste dut.

- a) baina
- b) besterik
- c) ez
- d) barik

62 Maddiren senarra, emanda hil da.

- a) bihotza
- b) bihotzak
- c) bihotzekoak
- d) bihotzez

63 Zein dago GAIZKI idatzia?

- a) Zerikusia
- b) Sena
- c) Sintzoa
- d) Zekena

64 Ohikoa da sarea arrantzarako erabiltzea; ez,, ehizarako. Antzina,, sarearekin ehizatzen ziren usoak.

- a) ordea / haatik
- b) baino / aitzitik
- c) dakigunez / esaterako
- d) alajaina / antza

65 Zein dago ondo idatzita?

- a) Hain beste.
- b) Alaber.
- c) Oro har.
- d) Hitzegin.

66 Zein da zuzena gramatika aldetik?

- a) Baneukan nor aukeratu, baina zu hobetsi zintudan.
- b) Berak jo zidan lehenengo eta nik erantzun egin nion.
- c) Orduan elkarri besarkatu genion, nahigabea arintzeko.
- d) Mutil horrek erabat lotsagarri utzi dit.

67 Zuzendariak ez du jarrera aldatuko; gainera,

- a) ez dauka zertan aldatu.
- b) ez dauka zertan aldatzerik.
- c) ez dauka aldatu behar.
- d) ez dauka zergatik aldatu behar.

68 Arren eskatu nion ez gauzak nahas.

- a) zitzakeela
- b) zizkiola
- c) zitzala
- d) zekizkiola

69 "Zigortu behar zenean, ez zuen inolako begirunerik". Zein da segida egokia?

- a) Aholkurik ez zuen eskatzen.
- b) Isilpean egiten zuen.
- c) Gaizki erabakitzen zuen.
- d) Berdin zitzaion nor zen.

70 Dekretu horrek ez du 0-3 zikloa modu egokian eskaintzea.

- a) esaten
- b) gorpuzten
- c) bermatzen
- d) iragazten

ATARIKO PROBA: ERANTZUNAK**HE2**

1	D	11	B	21	D	31	C	41	D	51	B	61	D
2	A	12	D	22	A	32	A	42	C	52	D	62	C
3	B	13	A	23	B	33	D	43	B	53	B	63	C
4	A	14	B	24	C	34	B	44	D	54	C	64	A
5	B	15	D	25	C	35	A	45	D	55	B	65	C
6	B	16	B	26	D	36	B	46	D	56	D	66	A
7	C	17	D	27	A	37	A	47	B	57	C	67	A
8	B	18	A	28	C	38	A	48	C	58	A	68	C
9	B	19	B	29	A	39	B	49	A	59	A	69	D
10	B	20	A	30	D	40	C	50	D	60	C	70	C